*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**7141**

**78/2012 FORU DEKRETUA, abenduaren 28ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez onartzen da Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontuak 2013ko ekitaldirako luzatzeko araubidea.**

Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren 87. artikuluak xedatzen duenaren arabera “ekitaldi bati dagozkion aurrekontuak ekitaldi hori hastean indarrean sartzen ez badira, aurreko ekitaldikoak era automatikoan luzatuta geratuko dira, berriak onartu arte”. Artikulu horretako aurreikuspenak oso orokorrak direnez, komeni da garatzea aurrekontu jarduera zuzenduko duten irizpideak argitzeko eta luzatutako aurrekontuko zuzkidurei eraginkortasun juridikoa emateko haiek ofizialki argitaratuz.

Arabako Biltzar Nagusiek Arabako Lurralde Historikoaren 2013rako Aurrekontua Gauzatzeko Foru Arauaren proiektua ez onartzeak Arabako Lurralde Historikoaren 2012ko Aurrekontu Orokorrak era automatikoan 2013rako luzatzea ekarriko du.

Foru Dekretu honen bitartez, lehenik, behar den oreka mantendu nahi du Erakundeen jarduera bermatzeko tresna den Aurrekontuaren erabileraren eta Arabako Biltzar Nagusiekiko errespetuaren artean, haiek baitira ekitaldi ekonomikoa aurrera eramateko behar diren kredituak baimentzeko eskumena duen erakundea, eta, bigarrenik, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak, Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzkoak, xedatzen duenari jarraituz Arabako Foru Administrazioari aplikagarri zaizkien arauak betetzea

Ikusi da Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeak horren inguruan egindako txostena.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

**1. artikulua.- Aurrekontu luzapenaren araubidea.**

Luzatutako Aurrekontuei erregimen juridiko hau aplikatu behar zaie: Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren 87. artikuluak jasotzen duena, 2012ko ekitaldiko Aurrekontua Gauzatzeko abenduaren 20ko 17/2011 Foru Arauan ezarritakoarekin osatua.

**2. artikulua.- Aplikazio eremua.**

1. Foru Dekretu hau Arabako Foru Aldundiari eta Foru Erakunde Autonomoei aplikatzekoa da.

2. Foru Sozietate Publikoei haientzat berariaz arautatakoa aplikatuko zaie, baita Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren 47.2 artikulua ere.

**3. artikulua.- Luzatutako aurrekontuen zehaztapena eta zenbatekoa.**

Luzatutako kredituak eta dagokien zenbatekoa Diputatuen Kontseiluak zehaztuko ditu, behar den adina aldiz 2012ko ekitaldiko Aurrekontua ixteko eragiketak aurrera egitearen araberan, bat etorriz Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren 87.4 artikuluarekin.

**4. artikulua.- Luzatutako kredituen araubidea.**

1. Luzatutako kredituek mantendu egingo dute araubide lotura, hain zuzen ere Arabako Lurralde Historikoaren 2012ko ekitaldiko Aurrekontua Gauzatzeko abenduaren 20ko 17/2011 Foru Arauan ezarritakoa.

2. Luzapen aldian kreditu handigarritzat hartuko dira, 2012ko ekitaldirako aurrekontuan sartuta egonik, izaera hori zeukaten ordainketa kredituak, bertan ezarritako mugaraino.

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**7141**

**DECRETO FORAL 78/2012, del Consejo de Diputados de 28 de diciembre, que aprueba el régimen de prórroga de los Presupuestos del Territorio Histórico de Álava para el ejercicio 2013.**

El artículo 87 de Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario del Territorio Histórico de Álava, dispone que “Si los Presupuestos correspondientes a un ejercicio no hubiesen entrado en vigor al iniciarse éste, se consideraran automáticamente prorrogados los del ejercicio anterior hasta la aprobación de los nuevos”. El citado artículo contiene previsiones de carácter muy general que aconseja su desarrollo que marque los principios rectores de actuación presupuestaria, y dé eficacia jurídica a las dotaciones del Presupuesto prorrogado mediante su publicación oficial.

La no aprobación por las Juntas Generales de Alava del proyecto de Norma Foral de Ejecución Presupuestaria del Territorio Histórico de Alava para el ejercicio 2013, va a suponer la prórroga automática de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Alava del ejercicio 2012 para el 2013.

El presente Decreto Foral persigue, en primer lugar, mantener el necesario equilibrio entre la utilización del Presupuesto como instrumento que garantiza la actividad de las Instituciones, y el respeto a las Juntas Generales de Álava como instancia competente para autorizar los créditos con que afrontar presupuestariamente el ejercicio económico y en segundo lugar cumplir con los preceptos aplicables a la Administración Foral Alavesa de la Ley Orgánica 2/2012 de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Estabilidad Financiera

Visto el informe emitido al respecto por la Comisión Consultiva de la Administración Foral de Álava.

En su virtud y a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

DISPONGO

**Artículo 1.- Régimen de la prórroga presupuestaria.**

El régimen jurídico aplicable a los Presupuestos prorrogados será el contenido en el artículo 87 de la Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario, completado con lo establecido en la Norma Foral 17/2011, de 20 de diciembre, de ejecución presupuestaria para el ejercicio 2012.

**Artículo 2.- Ámbito de aplicación.**

1. El presente Decreto Foral será de aplicación a la Diputación Foral de Álava y a los Organismos Autónomos Forales.

2. A las Sociedades Públicas Forales les será de aplicación lo expresamente regulado para las mismas y el artículo 47.2 de la Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario.

**Artículo 3.- Determinación y cuantía de los créditos prorrogados.**

La determinación de los créditos prorrogados y su cuantía respectiva, se realizará por el Consejo de Diputados en cuantas ocasiones se requiera en función del grado de avance de las operaciones de cierre del Presupuesto del ejercicio 2012, de conformidad con el artículo 87.4 de la Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario.

**Artículo 4.- Régimen de los créditos prorrogados.**

1. Los créditos prorrogados mantendrán el régimen de vinculación establecido en la Norma Foral 17/2011, de 20 de diciembre, de Ejecución Presupuestaria del Territorio Histórico de Álava para el ejercicio 2012.

2. Tendrán la consideración de ampliables durante el periodo de prórroga los créditos de pago que, incluyéndose en ella, la hubiesen tenido en el presupuesto del ejercicio 2012 hasta el límite establecido en el mismo.

3. Ez dira luzagarriak izango, beste entitate publiko edo pribatuengandik jasotako funtsei dagokien zenbatekoan, 2012ko ekitaldian soilik jasotzekoak ziren sarrera espezifikoekin osorik edo partez finantzaturiko kredituak.

4. Luzapenak dirauen bitartean urte anitzeko gastuak egin ahal izango dira, baldin eta aurrez konprometituta badaude bere garaian indarrean zeuden baimenen arabera. Gastu hauek hurrengo ekitaldietarako konpromisoa betetzeko behar den kopurura mugatuko dira.

**5. artikulua.- Finantza eragiketen erregimena.**

1.- Foru Aldundiak 63.500.000 euroko muga du 2013an zorpetze eragiketa berriak ituntzeko, eta zenbateko hori 2013rako luzapenaren kredituak finantzatzeko beharrak estaltzeko erabiliko da.

2.- Gainerako foru erakundeentzat baimendutako zorpetzearen eta berme ematearen muga 0,00 eurokoa izango da, ondoko paragrafoetan ezarritako salbuespenarekin.

Vías de Álava S.A.U. foru sozietate publikoarentzat 27.150.000 eurokoa izango da 2013rako izango duen zorpetze muga. Arabako Foru Aldundiak eragiketa hori sendotu du edo zuzenean jaulki ahal izango du “Luko tartea, probintziak Gipuzkoarekin duen muga” izenekoaren eraikuntzako gainkostuek eragin duten erreklamazioaren ondoriozko zorra.

Era berean, Arabako Foru Aldundiak beharrezko diren jarduketak egin ahal izango ditu uztailaren 9ko 14/2012 Foru Arauak, enpresa txiki eta ertainen proiektuen finantzaketa bermatzeko programa bat onartzeko eta partida handigarritzat jotzeko baimena ematen duenak, xedatutakoa gauzatzeko.

3.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak diruzaintzako unean uneko zailtasunak artatzeko behar dituen finantzaketa eragiketak formalizatu ahal izango ditu. Eragiketa horien saldo biziak inoiz ezingo du gainditu Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretako diru sarrera arrunten ehuneko 10.

4.- Foru sozietate publikoek Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren baimena beharko dute diruzaintzako unean uneko zailtasunei erantzuteko behar diren finantzaketa eragiketak egin ahal izateko.

5.- Aurreko paragrafoetan aurreikusitakoari lotuta, indarrean jarraituko dute Arabako Lurralde Historikoaren 2012ko ekitaldiko Aurrekontua Gauzatzeko abenduaren 20ko 17/2011 Foru Arauak 5. eta 6. artikuluetan jasotako gainerako aurreikuspenak.

**6. artikulua.- Langile gastuak.**

1. Arabako Foru Aldundiaren eta Foru Erakunde Autonomoen plantillaren mugak, Arabako Lurralde Historikoaren 2012ko ekitaldiko Aurrekontua Gauzatzeko abenduaren 20ko 17/2012 Foru Arauan jasotzen denak, indarrean jarraituko du luzapen aldian ere.

2. Arabako Foru Aldundiko, Foru Erakunde Autonomoetako eta Foru Sozietate Publikoetako langile funtzionarioen, lan kontratudun langileen, behin-behineko langileen eta goi kargudunen ordainsari osoak ez dira igoko eta 2012. urtean bezala mantenduko dira, irailaren 7ko 310/2012 Foru Aginduak onartutako murrizketa aintzat hartu gabe. Edonola ere, Arabako Foru Aldundiko zein foru erakunde autonomoetako goi kargudunen eta foru sozietate publikoetako zuzendari-kudeatzaileen ordainsariak Arabako Foru Aldundiko Goi Kargudunen eta Behin-behineko Langileen Araubidea ezarri duen otsailaren 21eko 4/2000 Foru Arauan xedatutakoari lotuko zaizkio.

3. Aurreko paragrafoetan aurreikusitakoari lotuta, indarrean jarraituko dute aplikagarri den gaietan Arabako Lurralde Historikoaren 2012ko ekitaldiko Aurrekontua Gauzatzeko abenduaren 20ko 17/2012 Foru Arauak V. Tituluan jasotako aurreikuspenak, langile kudeaketari dagokionez.

**7. artikulua.- Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea.**

Arabako Foru Aldundiak eta foru erakunde autonomoek gastuak egin ahal izango dituzte ondasun eta zerbitzuak erosteko, foru admi-

3. No serán prorrogables, en el importe correspondiente a los fondos percibidos de otros entes públicos o privados, aquellos créditos financiados, total o parcialmente, con ingresos específicos que exclusivamente fueran a percibirse en el ejercicio 2012.

4. Durante la prórroga podrán realizarse gastos plurianuales comprometidos con anterioridad en virtud de las autorizaciones vigentes en su momento. La realización de estos gastos quedará limitada en la cantidad necesaria para cumplir el compromiso correspondiente a los ejercicios siguientes.

**Artículo 5.- Régimen de las operaciones financieras.**

1.- El límite para la Diputación Foral de Alava para concertar nuevas operaciones de endeudamiento durante el ejercicio 2013 por importe de 63.500.000 euros destinadas a cubrir las necesidades de financiación de los créditos de la prórroga para 2013.

2.- Para el resto de Entes Forales el límite de endeudamiento autorizado y de prestación de garantías asciende a 0,00 euros excepto lo previsto en los siguientes párrafos.

Para el caso de la sociedad pública foral Vías de Alava, S.A.U. el límite de endeudamiento para 2013 será de 27.150.000 euros. La Diputación Foral de Alava podrá afianzar dicha operación o emitir directamente la deuda derivada de la reclamación por sobrecostes constructivos del “Tramo Luko Límite de la provincia con Gipuzkoa”.

Asimismo la Diputación Foral de Alava podrá realizar las actuaciones necesarias para la ejecución de lo previsto en la Norma Foral 14/2012 de 9 de julio, de autorización para aprobar un programa para avalar la financiación de proyectos de pequeñas y medianas empresas y calificación de la partida como ampliable.

3.- El Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos podrá formalizar las operaciones de financiación necesarias para atender dificultades momentáneas de tesorería. En ningún caso, el saldo vivo de tales operaciones podrá superar el 10 por 100 de los ingresos ordinarios de los Presupuestos generales del territorio Histórico de Alava.

4.- Las Sociedades Públicas Forales podrán formalizar las operaciones de financiación necesarias para atender dificultades momentáneas de tesorería previa autorización del Diputado de hacienda, Finanzas y Presupuestos.

5.- Con sujeción a lo previsto en los números anteriores, continuarán vigentes el resto de las previsiones recogidas en los artículos 5 y 6 de la Norma Foral 17/2011, de 20 de diciembre, de Ejecución Presupuestaria del Territorio Histórico de Álava para el ejercicio 2012.

**Artículo 6.- Gastos de personal.**

1. El límite de plantilla para la Diputación Foral de Álava y los Organismos Autónomos Forales contenido en la Norma Foral 17/2012, de 20 de diciembre, de Ejecución Presupuestaria del Territorio Histórico de Álava para el ejercicio 2012, continuará vigente durante el periodo de prórroga.

2. Las retribuciones íntegras del personal funcionario laboral y eventual y de los altos cargos de la Diputación Foral de Álava y los Organismos Autónomos Forales y Sociedades Públicas no serán objeto de incremento, manteniéndose las correspondientes al año 2012, sin tenerse en cuenta la reducción aprobada por la Orden Foral 310/2012 de 7 de setiembre. En todo caso las retribuciones de los altos cargos de la Diputación Foral de Álava y los Organismos Autónomos Forales y los Directores Gerentes de las Sociedades Públicas Forales se ajustarán a lo dispuesto en la Norma Foral 4/2000, de 21 de febrero, reguladora del Régimen de los Altos y Cargos y Personal Eventual de la Diputación Foral de Álava, respectivamente.

3. Con sujeción a lo previsto en los números anteriores, continuarán vigentes en lo que fueran aplicables las previsiones recogidas en el Título V de la Norma Foral 17/2012, de 20 de diciembre, de Ejecución Presupuestaria del Territorio Histórico de Álava para el ejercicio 2012, relativas a la gestión de personal.

**Artículo 7.- Compra de bienes corrientes y servicios.**

La Diputación Foral de Álava y los Organismos Autónomos Forales podrán realizar gastos de adquisición de bienes y servicios

nistrazioaren funtzionamendurako beharrezkoak diren zerbitzu eta programei badagozkie.

**8. artikulua.- Finantza gastuak eta finantza-pasiboen aldaketa.**

Arabako Foru Aldundiak gauzatu ahal izango ditu 2013ko ekitaldia hasi aurretik baimendutako finantza eragiketei dagozkien gastuak edo ekitaldi honetan Foru Dekretu honen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera hitzartzen direnak.

Finantza eragiketa horien korritu, kapital amortizazio eta gastuei dagozkien kredituak, eman edo hitzartu zirenean araututako baldintzei loturik gauzatuko dira.

**9. artikulua.- Dirulaguntzak eta transferentziak.**

1. Dirulaguntza eta transferentzia izendun arrunt eta kapitalezkoak gauzatzeko baldintza da 2012ko ekitaldiko aurrekontuan sartuta egotea.

2. Xedapen edo hitzarmenetan aitortutako dirulaguntza arruntak edo kapital eragiketetarakoak Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren 87.3 artikuluak dioenaren arabera emango dira.

3. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak kudeatzen dituen eta aldiro jasotzekoak diren familientzako prestazioak eman ahal izango dira 2013. urtean, dagokion araudia aplikatzetik ateratzen den zenbatekoan.

4. Arabako Foru Aldundiak transferentzia arruntak eta kapitalezkoak egin ahal izango dizkie foru sektore publikoko gainerako entitateei eta berak bazkide gisa edo antzerako beste moduren batean parte hartzen duen beste entitateei.

**10. artikulua.- Inbertsio errealen kapitulua kudeatzea.**

Arabako Foru Aldundiak eta Foru erakunde Autonomoek mantentze eta berritze inbertsioetako gastuak egin ahal izango dituzte.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, ulertzen da berritze eta mantentze inbertsioetarako gastuak direla Administrazioaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak direnak.

**11. artikulua.- Finantza-aktiboen aldaketaren kapitulua kudeatzea.**

1. Arabako Foru Aldundiak soilik egin ahal izango ditu bere garaian indarrean zeuden baimenen arabera aurrez konprometitutako finantza-aktiboen gastuak. Gastu hauek 2013ko ekitaldirako eta hurrengoetarako konpromisoa betetzeko behar den kopurura mugatuko dira.

2. Arabako Foru Aldundiak Foru Sozietate Publikoen finantza oreka bermatzeko gastuak egin ahal izango ditu.

**12. artikulua.- Erakunde arteko konpromisoen kudeaketa.**

1. Estatuaren Administrazioari kupo gisa egitekoak diren finantza ekarpenak indarrean dauden legeek eta Kupoaren Batzorde Mistoaren akordioek zehazten dituzten zenbateko eta epeetan egingo dira.

2. Euskal Autonomia Erkidegoari bere Aurrekntu orokorrak finantzatzeko egitekoak diren ekarpenak indarrean dauden legeek eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren akordioek zehazten dituzten zenbateko eta epeetan egingo dira.

3. Arabako Toki Erakundeei Finantzaketarako Foru Funtsetik eta Obra eta Zerbitzuetarako Foru Planetik egitekoak diren transferentziak indarrean dauden legeek eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren akordioek zehazten dituzten zenbateko eta epeetan egingo dira.

4. Udalen parte hartzea itundu gabeko zergetan, hain zuzen ere Euskal Automonia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoa onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 51. artikuluan aipatzen direnetan, Estatuaren Administrazioak libratzen dituen zenbateko berberetan eta aldizkakotasun berarekin arautuko dira.

correspondientes a servicios o programas que sean necesarios para el funcionamiento de la Administración Foral.

**Artículo 8.- Gastos financieros y variación de pasivos financieros.**

La Diputación Foral de Álava podrá ejecutar los gastos derivados de operaciones financieras autorizadas con anterioridad al inicio del ejercicio 2013 o que se concierten durante este ejercicio en virtud de lo dispuesto en el artículo 5 del presente Decreto Foral.

La ejecución de los créditos correspondientes a intereses, amortización de capital y gastos de dichas operaciones financieras comprometidas deberá ajustarse a las condiciones que regularon las correspondientes emisiones o contratos.

**Artículo 9.- Subvenciones y transferencias.**

1. Las subvenciones y transferencias nominativas corrientes y de capital, podrán hacerse efectivas siempre y cuando hubieran estado incluidas en el presupuesto del ejercicio 2012.

2. Las subvenciones corrientes o para operaciones de capital, cuya concesión estuviese reconocida en virtud de disposiciones y convenios, se efectuarán, de acuerdo con lo previsto en el artículo 87.3 de la Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario.

3. Las prestaciones económicas de devengo periódico correspondientes a transferencias a familias gestionadas por el Instituto Foral de Bienestar Social podrán efectuarse durante el ejercicio 2013, en la cuantía que resulte de la aplicación de la normativa correspondiente.

4. La Diputación Foral de Álava podrá realizar transferencias corrientes y de capital, tanto al resto de entes que forman parte del Sector Público Foral como a aquellas otras entidades de las que forma parte en calidad de asociado o figuras similares.

**Artículo 10.- Gestión del Capítulo de inversiones reales.**

La Diputación Foral de Álava y los Organismos Autónomos Forales podrán realizar gastos de inversiones de reposición y mantenimiento.

A efectos de lo establecido en el párrafo anterior, se entiende por gastos de inversiones de reposición y mantenimiento aquellos gastos necesarios para el adecuado funcionamiento de la Administración.

**Artículo 11.- Gestión del Capítulo de variación de activos financieros.**

1. La Diputación Foral de Álava podrá realizar exclusivamente aquellos gastos en activos financieros comprometidos con anterioridad en virtud de las autorizaciones vigentes en su momento. La realización de estos gastos quedará limitada en la cantidad necesaria para cumplir el compromiso correspondiente al ejercicio 2013 y siguientes.

2. La Diputación Foral de Álava podrá realizar los gastos destinados a garantizar el equilibrio financiero de las Sociedades Públicas Forales.

**Artículo 12.- Gestión de los compromisos institucionales.**

1. Las aportaciones financieras a la Administración del Estado en concepto de Cupo se realizarán en las cuantías y plazos determinados por las leyes vigentes y por los Acuerdos de la Comisión Mixta de Cupo.

2. Las aportaciones a la Comunidad Autónoma del País Vasco para la financiación de sus Presupuestos Generales se realizará en las cuantías y plazos determinados por las leyes vigentes y por los Acuerdos del Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

3. Las transferencias a las Entidades Locales Alavesas por los conceptos de Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de Álava y de Plan Foral de Obras y Servicios se realizarán en las cuantías y plazos determinados por la normativa foral vigente y por las previsiones de recaudación por tributos concertados aprobadas por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

4. Las participaciones municipales en los impuestos no concertados a que se refiere el artículo 51 de la Ley 12/2002, de 23 de Mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, se ordenarán por los mismos importes y con la misma periodicidad con que se libren por la Administración del Estado.

5. Arabako Lurralde Historikoko Biltzar Nagusiei bere finantzaketa beharrak asetzeko egitekoak diren transferentziak, aplikatzekoak diren arauen arabera egingo dira.

**13. artikulua.- Biltzar Nagusiak informatzea.**

Luzapen aldiak dirauen bitartean Biltzar Nagusietara informazioa bidaliko da, hain zuzen ere abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzkoak, 131. artikuluan jasotakoa.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru Sektore Publikoak 2013ko ekitaldian eskumenak hartuko balitu eta horrek luzatutako aurrekontuaren zenbatespenean eraginik balu, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak dagozkien aurrekontu aldaketak egiteko espedienteak izapidetuko lituzke, haien behar bezala finantzatzen direla bermatzeko.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Luzatutako kredituen zenbatekoaz Foru Dekretu honen 3. artikuluan adierazitakoa gorabehera, jarduera hauek finantzatu ahal izango dira beharrezko kreditu aldaketak eginda:

a) Kontratu edo lankidetza hitzarmenetako zenbatekoen eguneratzeak, berrikusi edo eguneratu beharreko prezioak eta/edo kostuak badituzte.

b) Aurrekontua luzatu den ekitaldian oso-osorik gauzatu ez diren zerbitzuak finantzatzeko kredituen eguneratzeak.

c) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen eta aldiro jasotzekoak diren familientzako prestazio ekonomikoen eguneratzea, Foru Dekretu honen 10.3 artikuluan aurreikusitakoa.

d) Kreditu zuzkidurak eguneratzea ondoan zehazten diren entitateekin sinatutako kontratu eta/edo hitzarmenetarako: foru sozietate publikoak, Artium Fundazioa, Alvide Fundazioa, Santa Maria Katedrala Fundazioa eta Añanako Gatz Harana Fundazioa eta partaidetu edo babestutako entitateak

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Indarrean jarraituko dute Arabako Lurralde Historikoaren 2012ko ekitaldiko Aurrekontua Gauzatzeko abenduaren 20ko 17/2011 Foru Arauak Lehenengo Xedapen Gehigarrian eta Hirugarren Xedapen Gehigarrian jasotako aurreikuspenak.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

1ª.- Indarrik gabe uzten dira irailaren 25eko Diputatuen Kontseiluaren 48/2012 Foru Dekretuaren bigarren artikulua, aurrekontuaren aldaketak onartzeko epemugari buruzkoa. Foru Dekretu horren bidez onartu ziren 2012ko aurrekontu ekitaldiko itxiera eragiketak eta aldaketa haien ondorioz sortzen diren kontabilitate faseak.

2ª.-Ez da aplikatzekoa izango aipaturiko 48/2012 Foru Dekretuaren hirugarren artikulua konpromiso kredituen urtekoak doitu edo egokitzea edo halakoak sortzea dakarten aurrekontu aldaketei.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko.

AZKEN XEDAPENETATIK AZKENEKOA

Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzekoa izango da, aurrekontu luzapenak dirauen bitartean.

Gasteiz, 2012ko abenduaren 28a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, AITOR URIBESALGO LORENZO.– Ogasun zuzendaria, Finantza eta Aurrekontu zuzendari eginkizunetan, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

5. Las transferencias a las Juntas Generales del Territorio Histórico de Álava para cubrir sus necesidades de financiación se realizarán conforme a la normativa aplicable.

**Artículo 13.- Información a Juntas Generales.**

Durante el periodo de prórroga se remitirá a las Juntas Generales la información prevista en el artículo 131 de la Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario.

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

Si la asunción de competencias por parte del Sector Público Foral durante el ejercicio 2013 afectara a la estimación del presupuesto prorrogado, el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos instrumentará los correspondientes expedientes de modificaciones presupuestarias que garanticen la correcta financiación de las mismas.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA

No obstante lo señalado sobre la cuantía de los créditos prorrogados en el artículo 3 del presente Decreto Foral, podrán financiarse mediante las oportunas modificaciones de crédito las siguientes actuaciones:

a) La actualización de los importes correspondientes a contratos o convenios de colaboración que impliquen la revisión y/o actualización del precio y/o costes.

b) La actualización de los créditos destinados a financiar servicios cuya prestación no se haya desarrollado en su totalidad en el ejercicio cuyo presupuesto se prorrogue.

c) La actualización de las prestaciones económicas de devengo periódico correspondientes a transferencias a familias gestionadas por el Instituto Foral de Bienestar Social prevista en el artículo 10.3 del presente Decreto.

d) La actualización de las dotaciones de crédito a las Sociedades Públicas Forales, Fundación Artium, Fundación Alvide, Fundación Catedral Santa Maria y Fundación Valle Salado y entes participados o patrocinados para la actualización de los importes correspondientes a contratos y/o convenios.

DISPOSICIÓN ADICIONAL TERCERA

Continuarán vigentes las previsiones recogidas en la Disposición Adicional Primera y Tercera de la Norma Foral 17/2011, de 20 de diciembre, de Ejecución Presupuestaria del Territorio Histórico de Álava para el ejercicio 2012.

DISPOSICIÓN ADICIONAL CUARTA

1ª.- Queda sin efecto el artículo segundo, que regula la fecha límite para la aprobación de modificaciones presupuestarias, del Decreto Foral 48/2012, del Consejo de Diputados de 25 de septiembre, que aprueba las operaciones de cierre del ejercicio presupuestario 2012 y aquellas fases contables derivadas de aquellas modificaciones.

2ª.-No resultará de aplicación el artículo tercero del citado Decreto Foral 48/2012, a las modificaciones presupuestarias que supongan ajustes y adecuaciones entre las anualidades de los créditos de compromiso o la creación de los mismos.

DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA

Se faculta al Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto Foral.

DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA y será de aplicación desde el 1 de enero del año 2013, durante todo el periodo de prórroga presupuestaria.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de diciembre de 2012.– El diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– El diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, AITOR URIBESALGO LORENZO.– El director de Hacienda, en funciones del director de Finanzas y Presupuestos, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.